

Trio Itxaropen

- Marisol Garmendia Jauregi (Legazpin, 1948/7/23an jaioa).
 - M. Angeles (Marian) Garmendia Jauregi (Legazpin, 1950/2/22an jaioa).
 - Yosune Makibar.
-
- Elizako koruan hasi ziren kantatzen, D. Jose Atxukarrokekin.
 - Elizan, Gabonetan eta beste ospakizun batzuetan kantatzen zuten.
 - Lehen aldiz hirurak La Sallen kantatu zuten, eta jarraitzeko eskatuta sortu zen hirukotea.
 - Hasieran, Lurdes Iriondoren, Xabier Leteren... abestiak kantatzen zituzten.
 - Ez Dok Hamairurekin, Maite Idirinekin, Oskorrirekin, Urretxindorrek taldearekin (harreman estua zuten horiekin) eta beste askorekin batera parte hartu zuten jaialdietan.
 - Gipuzkoan zehar herri askotan ibili ziren, baina batez ere Bizkaian.
 - Abestien musika Paskual Barturen musikari pasiotarrak egiten zien eta letra Jose Agustin Orbegoza pasiotarrak. Prestakuntza ere pasiotarrek Pagoetan duten egoitzan egiten zuten.
 - Marisolek Gasteizko Iradier abesbatzan jarraitzen du kantatzen eta Yosunek Elizondoko abesbatzan.

Gaintzako taldea

Jesus Mari Gonzalez Ezama (Legorreta, 1972/09/09)

- Legorretan solfeoa ikasten aritu zen Pello Ramirezekin.
- Alegiako Andoni Arratibelekin ikasi zuen gitarra.
- Hau da bere lehenengo taldea.

Iraitz Ibarzabal Gonzalez (Soraluze, 1979/01/21)

- Taldearen sortzailea izan da.
- Aita "Akelarre" taldearen sortzaileetakoa du, beti izan du harremana musikarekin etxean.
- Gitarra ikasten Eibarko Musika Eskolan hasi zen, Markos Juaristirekin; gero, bere kabuz aritu da.
- Teklatua ere jotzen du pixka bat.

Juan Mari Zunzunegi Garmendia (Ordizia, 1969/09/10; gurasoak Gaintzakoak)

- Solfeoa Musikabin ikasi zuen eta harmoniako lehen 2 ikastaroak ere bai. 3. eta 4. harmoniako ikastaroak, berriz, M. Lourdes Astraineekin.
- Gitarra jotzen du.